

Hegazkin istripua Barajasen >

Rakel Mateo > Psikoterapeuta

Herenegungo istripuak «heriotzaren errealitatea» aurrean jarri dio gizarteari, Rakel Mateo psikoterapeutak dioenez. Hildakoen senideak «laino batean bezala» daude, ordea; asko ez dira oraindik konturatu zer gertatu den.

«Heriotzaz jabetzen gara horrelakoetan»

Mikel Peruarena Ansa

Heriotzari aurre egiten ari diren pertsonekin lan egiten du, Senda Fundazioan, Rakel Mateok (1980, Iruñea). Dolu prozesuetan mina igarotzea beharrezkoa dela adierazi du, heriotza onartu eta gainditzeko.

Nola eragiten dute gizartean herenegungoaren moduko istripuek?

Horrelako istripuak gertatzen direnean heriotzaren errealitateaz jabetzen gara. Heriotza ahaztu eta ukatu egiten dugu askotan; iruditzen zait bizi garela heriotzatik aparte bezala, gurekin zerikusirik ez balu bezala, eta hegazkin horren, edo martxoaren 11koa-

ren, edo antzeko gertaeren aurrean, bat-batean gutako edonori gerta dakiokela, kontzientzia hori hartzen dugu, heriotza esistitzen dela konturatzen gara. Lehen uneak dira kontzientzia horrenak, gero ahazten doa pixkanaka, eguneroko errutinara itzultzen goazen heinean.

Eta senideei, nola eragiten die?

Pertsona bakoitzak dolua igarotzeko bere modua dauka, baina dolu prozesu guztiek jarraibideak dituzte. Hasieran, sinesgogotasuna dago. Pertsonak laino batean bezala daude, sinistu ezinik, *shock* batean. Egunak igaro ahala konturatzen hasten dira pertsona maite hori galdu dutela. Laino-

etatik egunerokotasunera jaistean hasten dira amorrua eta depresioa eta halakoak agertzen. Orain Ifeman dauden senideak beren

«Dolua prestatzen hasteko beharrezkoa da gorpuak ikusi edo identifikatzea»

errutinatik atereak daude, eta egiazko mina errutinarekin hasiko zaie.

Nolako laguntza behar dute senideek lehen une horietan?

Une horietan egin litekeen bakarra haiekin batera egotea da. Nahiz eta gorpuak ikusi, egun ba-

kar bat baino gehiago behar da maite duzun pertsona hil dela onartzeko, eta doluak izen hori du dolorea sortzen duelako. Uste dut dolua pasatzeko mina pasatu egin behar dela. Dolu guztiak dira ezberdinak, baina horrelako kasuetako doluak bereziak dira: 150 familia daude, oso txikituak dauden gorpuak identifikatu behar dituzte... Eta horrek zaildu egiten du prozesua. Zama hori pixkanaka arintzen hasi behar dute.

Laguntza nahikoa jasotzen dute?

Hasieran babes handia izaten da, baina memento batetik aurrera zuk zeure minarekin jarraitzen duzu, eta jendea egunerokotasunean murgildu da. Hasieran oso

ondo dago *shock* eta kaos egoera horretan lagun egitea, baina gero ere behar du jendeak laguntza. Pentsatu nahi dut gero eta gehiago lantzen dela hori, eta zerbitzuak hobetzen doazela. Senda Fundazioan horretan saiatzen gara, eta orain badira Madrilen eta Bartzelonan ere antzeko elkarreak.

Garrantzitsua da azken agurra emateko gorputzak identifikatzea?

Ezinbestekoa da lan hori, familia bakoitzak esan dezan: «Bai hau da nire senidearen gorpu». Senideentzat gogorra izan daitekeen arren, agurra eta dolua prestatzen hasteko beharrezkoa da gorpuak ikusi edo identifikatzea.

Euskal Telebistak zuen antenaren hegalaekin jo, eta Iberiako Boeing 727 hegazkin batek istripua izan zuen Oiz mendian, 1985ean. 148 hildako izan ziren.

Oiz mendiko istripua gogoan

Ainara Arratibel Donostia

Euskal Herrian inoiz izan den hegazkin istripu larriena izan zen 1985eko otsailaren 19an Oiz mendian (Bizkaia) gertatutakoa. Madril eta Bilbo arteko bidea egiten zuen Iberiaren Boeing 727 hegazkin bat bertan erori zen, eta barruan zihozten 148 pertsonak han hil ziren. «Hara iritsi ginenean topatu genuen egoera lazagarría izan zen», dio Bizkaiko DYako buru Juan Antonio Uzparitza medikuak.

Alhambra de Granada hegazkinak 09:25 aldera jaso zuen Sondikako aireportura hurreratze baimena. Hegazkina lurreratzen ez zela ikusita, kontrolatzaileak Jose Luis Patiño komandantearekin harremanetan jartzen ahalegindu ziren, baina ezinezkoa izan zen.

Hegazkinak Euskal Telebistak Oiz mendian zeukan antenaren hegalaekin jo zuen. Su hartu, pinudi bat zeharkatu eta erreka batean gelditu zen. Ez zen erraza izan istripuaren lekua topatzea. «Nahasmena handia izan zen. Babes zibilekoek esandako lekura joan, eta ez zegoela ezer ikusi ge-

nuen». Hiru ordu behar izan zituzten istripuaren tokia topatzeko. Salbamendu lanak gogorak izan ziren. «Istripua mendian izan zen, eta zaila zen hara iristea».

Profesionalki bizi izan duen egoera zailena izan da Oizkoa. «Gure lanagatik *ohituta* gaude halako egoerak bizitzera. Baina istripu hark guztiak gainditu gintuen. Bidaiariaren artean hainbat ezagun nituen». Gorpuak Bilboko Garellanon antolatutako pabiloira eraman zituzten. Han identifikatu zituzten gorpu horiek. «Egunak iraun zituzten identifikazioek, gorpuak kiskalita baitzeuden».

Hileta elizkizunak hurrengo egunean egin ziren Bilboko Begoñako basilikan. 1987ko azaroaren 4ra arte ez zen jakinarazi ezbeharren inguruko txosten ofiziala. Iberiaren aurkako salaketa iragarri zuten hainbat biktimaren senideek. Baina 1987ko abenduan Gernikako epaileak istripuaren auzia artxibatu zuen. 1988an Bilboko Auzitegira heldu zen, eta hango epaileak berriro zabaltzea erabaki zuen. 1992an istripuari buruzko ikerketa gehiago egitea agindu zuen Bilboko Auzitegiak.



Oiz mendian istripua izan zuen hegazkinaren zatiak. DEIA